

SEGMENTAZIOA

2.1 MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua, merkatu nitxoa izango da. Hain zuzen ere gazteen beharrak eta interesak asetzera zuzendutako eskaintza espezializatua da, zehazki dirua lortzeko aukera izan nahi duten eta beren gaitasunak baliatu nahi dituzten gazteei. Merkatu nitxoa izateak lehiakide gutxiago izatea dakar, eta horrek aukera ematen digu gure aplikazioa espezializatutako soluzioekin eskaintzeko.



2.2 XEDE BEZEROA

Plataforma honen erabiltzaile nagusiak gazteak izango dira, 15 eta 25 urte bitarteko adin-tartea. Adin-tarte horretan dauden gazteak, oro har, ikasten ari dira edo denbora libre apur bat dute, eta horrek aukera ematen die plataforman parte hartzeko. 25 urtetik gorako gazteek normalean lehenengo lan-aukerak izaten dituzte, eta horregatik, adin horretako erabiltzaileak gutxiago izango dira.



Erabiltzaileak bi talde nagusitan banatuko dira: lehenengo taldea trebetasunak dituzten gazteak izango dira, zerbitzuak eskaini nahi dituztenak, eta bigarren taldea, berriz, laguntza behar dutenak, zerbitzuak kontratatu nahi dituztenak. Hala ere, plataforma ez da gazteen adin-tarta horretara mugatuko soilik, izan ere, beste adin tarteko pertsonak ere erakartzeko aukera izango du. Hala ere, fokoa gazteengan egon arren, plataformak adin desberdinetako erabiltzaileak integratzeko aukerak izango ditu.

